



EMI/AIO

12C Res. 1.005-C/2018

## EBAZPENA - RESOLUCION

Donostia, 2018ko maiatzaren 11.

San Sebastián, 11 de mayo de 2018.

2010eko abuztuan abian jarri zen Martutene eta Amara lotzen dituen Urumeako korridorearen azken zatia, "GI-41 Donostia hegoaldeko sarbidea, Urumean barrena" errepideak barne hartzen duen Loiolako saihezbidea, eta 2011ko apirilean zirkulaziora ireki zen Martutene, ospitale gunea eta Donostiako GI-20 saihezbidea lotzen dituen errepide berria, Intxaurren eta Martutene artean lehenagotik zegoenari lotzen zitzaiona, eta horrela sortu zen "GI-40 Intxaurren-Martutene-Ospitaleak ingurabidea" izeneko saihezbide txikia. Ikusi da Martuteneko biribilgunean, ordu jakin batzuetan, auto ilarak sortzen direla, bereziki esanguratsuen 15:00ak inguruan gertatzen da, ospitale guneko langileen irteera orduan, hain zuzen ere.

Auto pilaketa horiek murrizteko proiektu hau idatzi da: "GI-40 ERREPIDEAN, MARTUTENEO BIRIBILGUNEAN, OSPITALEAK - STIGARRAGA MUGIMENDUA EGITEKO ZUZENEKO LERROA (1-NC-4/2018)", zeinak zehazten eta baloratzen dituen zuzeneko errei bat egiteko beharrezko lanak, GI-40 errepideko ospitale gunetik Martuteneko biribilgunera iristen diren ibilgailuek GI-41 errepidea hartu dezaten, Astigarragarantz, biribilguneko eraztunetik pasa gabe.

Eraztuna baino 80 metro lehenago, paraleloan doan eta irlatxo baten bidez bereizitako 3,50 metroko hirugarren errei bat egingo da, biribilgunetik 20 metro ingurura. Horrela, Astigarragako noranzkoan, GI-41 errepideko bi errietatik bat hartu ahal izango da zuzenean, eta bestea biribilgunearen irteerarako utziko da.

Tras la entrada en servicio, en agosto de 2010 el tramo final del corredor del Urumea de Martutene a Amara, variante de Loiola integrada en la carretera "GI-41 Acceso sur a Donostia-San Sebastián desde el Urumea", y en abril de 2011 la nueva carretera de conexión entre Martutene, la zona hospitalaria y la GI-20 variante de Donostia-San Sebastián, que se unía con la ya existente entre Intxaurren y Martutene conformando así una pequeña variante "GI-40 Ronda Intxaurren-Martutene-Hospitales", se ha detectado que en la rotonda de Martutene se generan largas colas de entrada a determinadas horas, especialmente la más acusada en torno a las 15 horas, coincidiendo con la salida de trabajadores de la zona hospitalaria.

Con objeto de reducir las colas que se generan se ha redactado el PROYECTO DE CARRIL DIRECTO PARA EL MOVIMIENTO HOSPITALES - ASTIGARRAGA EN LA ROTONDA DE MARTUTENE DE LA GI-40 (1-NC-4/2018) que define y valora los trabajos necesarios para habilitar un carril directo para que los vehículos que circulando por la GI-40 desde la zona hospitalaria lleguen a la rotonda de Martutene puedan tomar la GI-41 hacia Astigarraga sin pasar por el anillo de la rotonda.

La solución consiste en la creación, 80 metros antes del anillo, de un tercer carril de 3,50 metros paralelo separado mediante una isleta física a unos 20 metros de la rotonda para incorporarse directamente a uno de los dos carriles de la GI-41 en sentido Astigarraga dejando el otro para la salida de la rotonda.



## EMI/AIO

12C Res. 1.005-C/2018

Kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 154.263,57 euro da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 32.395,35 euro, eta lanak egiteko epea bi hilabete eta erdi.

Kontratuaren balio zenbatetsia 154.263,57 euro da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu batekin 101. artikuluan xedatutako ondorioetarako.

Obrak egiteko beharrezko lursailak erabilgarri daude, lan guztiak bidearen herri jabarian egingo direlako.

Ondorioz, Errepideetako zuzendari nagusiak, Bide Azpiegituretako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko 2016ko uztailaren 19ko 20/2016 Foru Dekretuak 4.2.a artikuluan aurreikusitako eskumen eta funtzioak erabiliz,

## EBAZTEN DU

**Lehenengo.-** Onestea ondorengo proiektu hau, GI-40 ERREPIDEAN, MARTUTENEO BIRIBILGUNEAN, OSPITALEAK – ASTIGARRAGA MUGIMENDUA EGITEKO ZUZENEO LERROA (1-NC-4/2018), Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratuak 20. artikuluan aipatzen duen eraikuntza proiektuaren izaerarekin

**Bigarren.-** Onestea baldintza administratibo berezien agiria, aipatutako zerbitzua kontratatzeko. Epea bi hilabete eta erdi izango da eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 154.263,57 euro, gehi % 21eko BEZari dagozkion 32.395,35 euro.

**Hirugarren.-** Baimentzea ehun eta laurogeita sei

El proyecto tiene un presupuesto base de licitación de 154.263,57 euros, más 32.395,35 euros en concepto de IVA (21%), y un plazo de ejecución de dos meses y medio.

El valor estimado del contrato, a efectos de lo dispuesto en el artículo 101 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público TRLCSP, asciende a 154.263,57 euros.

Los terrenos necesarios para la ejecución de las obras están disponibles ya que las mismas se realizarán en su totalidad dentro del dominio público viario.

En consecuencia, esta Directora General de Carreteras, en el ejercicio de las competencias y funciones previstas en el artículo 4.2.a) del Decreto Foral 20/2016 de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Infraestructuras Viarias,

## RESUELVE

**Primero.-** Aprobar, con el carácter de proyecto de construcción a que se refiere el artículo 20 del Texto Refundido de la Norma Foral de Carreteras y Caminos de Gipuzkoa el PROYECTO DE CARRIL DIRECTO PARA EL MOVIMIENTO HOSPITALES-ASTIGARRAGA EN LA ROTONDA DE MARTUTENE EN LA GI-40 (clave 1-NC-4/2018).

**Segundo.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares para la contratación de los servicios referidos, con un plazo de ejecución de dos meses y medio y un presupuesto base de licitación de 154.263,57 euros, más 32.395,35 euros en concepto de IVA (21%).

**Tercero.-** Autorizar un gasto de ciento ochenta y



EMI/AIO

12C Res. 1.005-C/2018

mila seiehun eta berrogeita hemezortzi euro eta laurogeita hamabi zentimoko gastua (186.658,92 €), BEZa barne, aurrekontuko 1.0710.110.611.01.01 partidaren kontura.

**Laugarren.-** Kontratazio espedientea onestea, eta presazko tramitazio bidez, kontratua prozedura ireki sinplifikatuaz eta prezioa irizpide bakartzat hartuta esleitzeko prozedurari hasiera ematea.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatuari. Horretarako, hilabeteko epea dute jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

seis mil seiscientos cincuenta y ocho euros con noventa y dos céntimos (186.658,92 €), IVA incluido, con cargo a la partida 1.0710.110.611.01.01 del vigente presupuesto.

**Cuarto.-** Aprobar el expediente de contratación y disponer su apertura mediante la tramitación urgente por procedimiento abierto simplificado con el precio como único criterio de valoración para la adjudicación del contrato.

La presente Resolución no pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante la Diputada Foral del Departamento de Infraestructuras Viarias en el plazo máximo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación, sin perjuicio de utilizar cualquier otro recurso que estimen pertinente.

ERREPIDEETAKO ZUZENDARI NAGUSIA / LA DIRECTORA GENERAL DE CARRETERAS

Izpta. / Fdo.: Silvia Pérez Yéboles.

NORI JAKINARAZI / COMUNICADO A:  
DONOSTIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN  
FINANTZAK ETA AURREKONTUAK/ FINANZAS Y PRESUPUESTOS

